Espediente zenbakia: 2025-066247

Euskarako, Herritarren Arreta eta Partaidetzako, 2030 Agendako eta Nazioarteko Gaietako Saila

PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA

Helburua: Bilboko merkataritza- eta ostalaritza- sektoreetan euskararen sustapen eta normalizazio egitasmoa ***(Biribilko)*** gauzatzea, eta egitasmo hori zerbitzu-sektoreko establezimenduetara faseka zabaltzea

EGILEA: Euskarako Zuzendaritza

Iratxe Enderika, Administrazio Teknikari orokorra
Nagore Layuno, Hizkuntza Plangintzako Sekzioko burua

Honako hauen oniritziarekin:

Mari Jose Arrieta, Euskarako zuzendaria

Egiaztatzeko Urla	https://www.bilbao.eus/aytoonline/verificacion-documentos?csv=dyX%2B%2FPKbd9xbjneB1wQKrw%3D%3D	Egoera	EGUN-ORDUAK
Nork Sinatua	Zuzendaria Director/a - Maria Jose Arrieta Sagarna	Sinatua	29/10/2025 09:49:05
	Sekzioburua Jefe/a de Sección - Nagore Layuno Gerrikagoitia	Sinatua	29/10/2025 09:45:29
	Arduradun Juridikoa / Responsable Jurídico - Miren Iratxe Enderika del Villar	Sinatua	28/10/2025 09:08:56
Araudia	Txosten honek kopia elektroniko autentikoaren izaera du, eta jatorrizkoaren baliozkotasun eta eraginkortasun administratiboa du (39/2015 Legea, 27. art.).		

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, BILBOKO MERKATARITZA- ETA OSTALARITZA- SEKTOREETAN EUSKARAREN SUSTAPEN ETA NORMALIZAZIO EGITASMOA *(BIRIBILKO)* GAUZATZEKO ETA EGITASMO HORI ZERBITZU-SEKTOREKO ESTABLEZIMENDUETARA FASEKA ZABALTZEKO LAGUNTZA TEKNIKOA ETA KUDEAKETA ZERBITZUA KONTRATATZEKO DENA.

1.- EREMUA

Bilboko Udaleko Euskarako Zuzendaritzaren misioa da euskararen erabilera normalizatzea eta sustatzea hiriko esparru guztietan, bilbotarren hizkuntza eskubideak bermatzeko eta euskararen presentzia indartzeko. Horretarako, herritarrek euskara modu naturalean erabiltzeko aukerak ugarituko ditu, Udalaren eta herritarren arteko komunikazio elebiduna bermatzea ahalbidetuko du, eta euskararen prestigioa eta balio soziala bultzatuko ditu gizartearen kohesio eta kultur aniztasunaren testuinguruan.

Bilboko Udalaren AROA Plan Estrategikoaren barruan (2025-2035) identifikatutako beharrei erantzuteko asmoa du kontratu honek. Taula honetan adierazten da kontratatu nahi diren prestazioek zein kokapen duten AROA Planaren ardatz estrategiko, erronka, lan-ildo, ekimen eta ekintzetan:

3. ardatz estrategikoa: Ezagutza / Gaitasuna
Erronka: EG.2. Euskara irakatsi eta ikasteko aukerak indartu eta berriak sortu.
Lan-ildoa: EG.2.2. Euskara ikasteko aukera berriak sortu eta baldintzak erraztu.
Ekimena: EG.2.2.1. Tokian tokiko beharrei erantzuten dieten euskalduntze prozesuak aztertu eta beharraren araberako eskaintzak sortu. Ekintza: Merkataritza eta ostalaritzako establezimenduetako langileentzako ikastaro egokitu eta bereziak eskaini.

4. ardatz estrategikoa: Erabilera / Elkarreragina
Erronka: EE.1. Euskara eguneroko bizitzan eroso erabiltzeko berariazko estrategiak garatu.
Lan-ildoa: EE.1.1. Euskararen babesguneak indartu eta berriak sortu.
Ekimena: EE.1.1.3. Euskara lan- eta zerbitzu-hizkuntza gisa orokortzeko prozesuak garatu erakunde publikoetan, eta euskaraz lan egiteko eta zerbitzua emateko aukeretan eragin erakunde pribatuetan. Ekintza: Bilbao Ekintzarekin lankidetzan arlo sozioekonomikorako egitasmoa garatu.

Egiaztatzeko Urla	https://www.bilbao.eus/aytoonline/verificacion-documentos?csv=dyX%2B%2FPKbd9xbjneB1wQKrw%3D%3D	Egoera	EGUN-ORDUAK
Nork Sinatua	Zuzendaria Director/a - Maria Jose Arrieta Sagarna	Sinatua	29/10/2025 09:49:05
	Sekzioburua Jefe/a de Sección - Nagore Layuno Gerrikagoitia	Sinatua	29/10/2025 09:45:29
	Arduradun Juridikoa / Responsable Jurídico - Miren Iratxe Enderika del Villar	Sinatua	28/10/2025 09:08:56
Araudia	Txosten honek kopia elektroniko autentikoaren izaera du, eta jatorrizkoaren baliozkotasun eta eraginkortasun administratiboa du (39/2015 Legea, 27. art.).		

Horrenbestez, kontratu honen xedea da 2026. eta 2027. urteetan, Bilboko merkataritza eta ostalaritza sektoreetan euskararen sustapen eta normalizazio egitasmoa (*Biribilko)* gauzatzeko eta egitasmo hori zerbitzu-sektoreko establezimenduetara faseka zabaltzeko laguntza teknikoa eta kudeaketa zerbitzua ematea.

Biribilko Bilboko merkataritza eta ostalaritza sektoreetan euskararen erabilera eta normalizazioa sustatzeko egitasmoa da. Horretarako euskararen ezagupena zabaldu, euskararen aldeko motibazioa areagotu eta euskararen erabilera sustatu nahi ditu.

Egitasmoaren sustatzailea Bilboko Udala da, Euskarako, Herritarren Arreta eta Partaidetzako, 2030 Agendako eta Nazioarteko Gaietako Sailaren bidez, eta Bilbao Ekintza udal erakundearen laguntzarekin.

Horiez gain, HABE, Bilboko euskaltegi homologatuak, bilbaoDendak, auzoetako merkatarien elkarteak eta Bizkaiko Ostalaritza Elkartea dira proiektuaren lankide eta babesleak.

Egitasmoa 2009az geroztik dago martxan. Hasiera batean, *Biribilko* egitasmoa merkataritza arlora mugatuta zegoen; hala ere, 2022tik aurrera Bilboko ostalaritza-sektoreko establezimenduetara ere zabaldu da.

Bilbo gaur egun zerbitzu-hiri bat da, hein handi batean. Zerbitzu-sektoreak presentzia eta garrantzi handia du hiriko eguneroko dinamikan, eta enpresa eta negozio ugari eta askotarikoak biltzen ditu bere baitan: merkataritza, ostalaritza, osasun- eta hezkuntza-zerbitzuak, aholkularitza edota aisialdia, besteak beste.

Testuinguru horretan, *Biribilko* egitasmoa zerbitzu-sektoreko establezimenduetara faseka zabaltzea urrats estrategiko eta beharrezkoa da, Bilboko ekonomia eta gizartearen egiturarekin bat datorrelako.

Bilboko merkataritzak, ostalaritzak eta, orokorrean, zerbitzu-sektoreak daukaten garrantzi ekonomiko eta soziala kontuan hartuta, esparru horietan euskara bultzatzea eta normaltzea funtsezkoa da, Bilbo osoaren hizkuntza normalizazioan eragin zuzena baitu.

Egiaztatzeko Urla	https://www.bilbao.eus/aytoonline/verificacion-documentos?csv=dyX%2B%2FPKbd9xbjneB1wQKrw%3D%3D	Egoera	EGUN-ORDUAK
Nork Sinatua	Zuzendaria Director/a - Maria Jose Arrieta Sagarna	Sinatua	29/10/2025 09:49:05
	Sekzioburua Jefe/a de Sección - Nagore Layuno Gerrikagoitia	Sinatua	29/10/2025 09:45:29
	Arduradun Juridikoa / Responsable Jurídico - Miren Iratxe Enderika del Villar	Sinatua	28/10/2025 09:08:56
Araudia	Txosten honek kopia elektroniko autentikoaren izaera du, eta jatorrizkoaren baliozkotasun eta eraginkortasun administratiboa du (39/2015 Legea, 27. art.).		

Beste alde batetik, eremu sozioekonomikoko sektore horiek lehentasunezkoak dira AROAn finkatutako gizarte erabileraren helburu estrategikoaren barruan eta plan hori Bilboko Udalaren hizkuntza-politikaren ardatz garrantzitsua da gaur egun.

2.- KONTRATUAREN XEDEA ETA LAN ILDO NAGUSIAK

Euskarako Zuzendaritzak zerbitzu-kontratu bat egin nahi du, *Biribilko* egitasmoaren garapenean eta zabalkundean lagunduko duen enpresa bat kontratatzeko.

Kontratuaren helburua da Bilboko merkataritza eta ostalaritza sektoreetan euskararen sustapen eta normalizazio egitasmoaren ***(Biribilko)*** lan-ildo estrategikoak garatzea eta egikaritzea, eta egitasmo hori zerbitzu-sektoreko establezimenduetara faseka zabaltzea.

Biribilko egitasmoaren garapena honako lau **lan-ildotan** egituratuko da:

1. **Aholkularitza eta prestakuntza**
   - Euskararen erabilera errazteko tresnak, formakuntza eta laguntza linguistikoa eskaintzea.
2. **Egitasmoaren jarraipena eta laguntza teknikoa**
   - Egitasmoaren dinamizazio, koordinazio eta datuen kudeaketa operatiboa.
3. **Komunikazioa eta marketina**
   - Egitasmoaren ikusgarritasuna eta parte-hartzea sustatzeko estrategia orokorra.
4. **Egitasmoaren ebaluazio sistematikoa**
   - Egitasmoaren emaitzak neurtzea, aztertzea eta hobekuntzak proposatzea.

Lan-ildo horiek garatzeko, enpresa esleipendunak ondoko eginkizunak gauzatu beharko ditu, Euskarako Zuzendaritzaren gidaritzapean eta koordinazioan.

Egiaztatzeko Urla	https://www.bilbao.eus/aytoonline/verificacion-documentos?csv=dyX%2B%2FPKbd9xbjneB1wQKrw%3D%3D	Egoera	EGUN-ORDUAK
Nork Sinatua	Zuzendaria Director/a - Maria Jose Arrieta Sagarna	Sinatua	29/10/2025 09:49:05
	Sekzioburua Jefe/a de Sección - Nagore Layuno Gerrikagoitia	Sinatua	29/10/2025 09:45:29
	Arduradun Juridikoa / Responsable Jurídico - Miren Iratxe Enderika del Villar	Sinatua	28/10/2025 09:08:56
Araudia	Txosten honek kopia elektroniko autentikoaren izaera du, eta jatorrizkoaren baliozkotasun eta eraginkortasun administratiboa du (39/2015 Legea, 27. art.).		

3.- ENPRESA ESLEIPENDUNAREN EGINKIZUNAK ETA ZERBITZUAK

Hauek izango dira enpresa esleipendunaren **eginkizunak** eta **eskaini behar dituen zerbitzuak:**

3.1. Prestakuntza jarduerak: *Biribilko* ikastaroak

Egitasmo honen baitan Bilboko merkataritza eta ostalaritza sektoreko langileentzako euskara-ikastaro espezifikoak eskaintzen dira.

Biribilko ikastaroetarako matrikulazio-kanpainak:
Biribilko ikastaroetarako matrikulazio kanpainak garatuko dira Bilboko merkataritza eta ostalaritza establezimenduen artean. Horretarako komunikazio kanal eta euskarri desberdinak erabiliko dira Bilboko merkataritza eta ostalaritza establezimendu guztiek ikastaroen berri izan dezaten.

Matrikulatu diren ikasleen jarraipena eta ikasturte amaierako memoria:
Hilez hil matrikulatu diren ikasleen jarraipena egingo da eta ikasturtearen amaieran euskara ikasteko ikastaroetan parte-hartu duten ikasle nahiz irakasleen balorazioak jaso, aztertu eta memoria batean bilduko dira.

Biribilko egiaztagiriak:
Biribilko ikastaroetan parte hartu duten ikasleei ikastaroa egin dutela jasotzen duen egiaztagiria banatuko zaie.

Matrikula-salbuespena egiaztatzen duen agiria:
Euskaltegien asistentzia-datuen arabera ezarritako baldintzak bete dituzten ikasleei hurrengo ikasturtean matrikula-ordainketatik salbuetsiko dien agiria banatuko zaie.

3.2. *Euskaraz barra-barra* ekimenaren jarraipena

Ekimen honek euskarazko arreta eskaintzen duten establezimenduak identifikatzea eta bezero eta merkatari euskaldunen arteko harremanetan euskararen erabilera sustatzea du helburu. Hori horrela, 2020an *Euskararen txandaren* eskutik hasitako ibilbideari jarraipena emango zaio eta establezimendu parte-hartzaileen identifikazioarekin jarraituko da.

Egiaztatzeko Urla	https://www.bilbao.eus/aytoonline/verificacion-documentos?csv=dyX%2B%2FPKbd9xbjneB1wQKrw%3D%3D	Egoera	EGUN-ORDUAK
Nork Sinatua	Zuzendaria Director/a - Maria Jose Arrieta Sagarna	Sinatua	29/10/2025 09:49:05
	Sekzioburua Jefe/a de Sección - Nagore Layuno Gerrikagoitia	Sinatua	29/10/2025 09:45:29
	Arduradun Juridikoa / Responsable Jurídico - Miren Iratxe Enderika del Villar	Sinatua	28/10/2025 09:08:56
Araudia	Txosten honek kopia elektroniko autentikoaren izaera du, eta jatorrizkoaren baliozkotasun eta eraginkortasun administratiboa du (39/2015 Legea, 27. art.).		

3.3. Aholkularitza linguistikoa eta zerbitzuen eskaintza

Aholkularitza linguistiko etengabea eskainiko da, bai webgunearen bidez, bai telefonoz jasotzen diren kontsultei erantzunez. Zerbitzu horrek euskararen erabileraren aldeko jarrerak sustatzea eta eguneroko erabilera erraztea izango ditu helburu.
Horrez gain, doako itzulpen-zerbitzua emango zaie *Biribilko* ikastaroetan matrikulatzen diren ikasleei eta eurek lan egiten duten establezimenduei, bai eta *Euskaraz barra-barra* egitasmoarekin bat egiten duten establezimenduei ere, ageriko mezu komertzialak euskarara itzultzeko.

3.4. Zerbitzu sektoreari ekiteko urratsak

Eustaten datuen arabera, 2024an Bilbon 19.079 establezimenduk osatzen zuten zerbitzu-sektorea. Jarduera-adar nagusien artean hauek daude: garraioa eta biltegiratzea; informazioa eta komunikazioak; jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak; osasun-eta gizarte-zerbitzuak; arte, aisialdi eta entretenimenduko jarduerak, besteak beste.

Hala ere, *Biribilko* egitasmoan parte hartzeko baldintzak aintzat hartuta —bezero nagusiak herritarrak izatea, enpresa edo erakunde pribatuak izatea eta kaletik sarbide zuzena duten establezimenduak izatea—, parte hartu ahal izango duten establezimenduen kopurua txikiagoa izango da zerbitzu-sektore osoaren aldean.

Testuinguru horretan, *Biribilko* egitasmoa zerbitzu-sektoreko establezimenduetara zabaltzea aurreikusten da. Horretarako, beharrezkoa izango da datu kuantitatiboen atzean dagoen errealitatea aztertzea, eta sektorearen dimentsioa kontuan hartuta, landa-lana faseka gauzatzea.

3.5. www.biribilko.eus webgunea

Biribilko webgunea tresna aktiboa da egitasmoaren informazioa eskaintzeko eta parte-hartzea sustatzeko. Hori horrela, webgunearen atalak etengabe eguneratu eta elikatu beharko dira, egitasmoaren bilakaera, ekintzak eta berrikuntzak islatuz.

Egiaztatzeko Urla	https://www.bilbao.eus/aytoonline/verificacion-documentos?csv=dyX%2B%2FPKbd9xbjneB1wQKrw%3D%3D	Egoera	EGUN-ORDUAK
Nork Sinatua	Zuzendaria Director/a - Maria Jose Arrieta Sagarna	Sinatua	29/10/2025 09:49:05
	Sekzioburua Jefe/a de Sección - Nagore Layuno Gerrikagoitia	Sinatua	29/10/2025 09:45:29
	Arduradun Juridikoa / Responsable Jurídico - Miren Iratxe Enderika del Villar	Sinatua	28/10/2025 09:08:56
Araudia	Txosten honek kopia elektroniko autentikoaren izaera du, eta jatorrizkoaren baliozkotasun eta eraginkortasun administratiboa du (39/2015 Legea, 27. art.).		

3.6. *Biribilko* egitasmoaren komunikazioa eta marketina

Enpresa esleipendunak komunikazio eta marketin-material desberdinak (paperezko zein elektronikoak) landu beharko ditu, establezimenduen artean zabaldu eta *Biribilko* egitasmoaren berri emateko. Helburu nagusiak hauek izango dira:

- Euskararen aldeko sentsibilizazioa sustatzea.
- Euskararen erabilera bultzatzea sektore horietan.
- Merkatarien eta ostalarien parte-hartze aktiboa lortzea.

Eginkizunak:

- Komunikazio-materialak sortu eta zabaltzea euskarri fisiko eta digitaletan.
- Barne-komunikazioa koordinatzea honako eragileekin: Bilboko Udaleko Euskarako Zuzendaritza, Bilbao Ekintza, Bilbao Dendak, merkatarien elkarteak, Bizkaiko ostalaritza elkartea eta euskaltegi homologatuak.
- Kanpo-komunikazioa kudeatzea: establezimenduak, bezeroak eta herritarrak.

Sortu beharreko materialen artean, besteak beste, honako hauek daude;

- *Biribilko*ren informazio-buletin elektronikoa
- Matrikulazio-kanpainako euskarriak
- Ikasleei zuzendutako egiaztagiriak
- "Euskaraz barra-barra" zabaltzeko euskarriak
- "Zabalik / Itxita" kartelak
- Arloko hiztegiak
- Establezimenduetarako erabilera sustatzeko euskarriak

3.7. Tokian tokiko lanak eta zuzeneko informazioa jasotzea

Biribilko egitasmoaren inguruko informazio dokumentala bildu eta aztertuko da.

Alde batetik, egitasmoa osatzen duten establezimenduen datu-basea eguneratuko da, gutxienez hiru urtetik behin. Azken eguneraketa 2025eko udazkenean egin da; hala ere, plegu hauek idazterakoan 2022ko lanean oinarritu behar dugu, orduan identifikatutako establezimenduen kopurua 6.256 izanik. Eguneraketaren bidez, irekita jarraitzen dutenak eta itxi edo desagertu direnak identifikatuko dira, baita zabaldu diren establezimendu berriak ere.

Egiaztatzeko Urla	https://www.bilbao.eus/aytoonline/verificacion-documentos?csv=dyX%2B%2FPKbd9xbjneB1wQKrw%3D%3D	Egoera	EGUN-ORDUAK
Nork Sinatua	Zuzendaria Director/a - Maria Jose Arrieta Sagarna	Sinatua	29/10/2025 09:49:05
	Sekzioburua Jefe/a de Sección - Nagore Layuno Gerrikagoitia	Sinatua	29/10/2025 09:45:29
	Arduradun Juridikoa / Responsable Jurídico - Miren Iratxe Enderika del Villar	Sinatua	28/10/2025 09:08:56
Araudia	Txosten honek kopia elektroniko autentikoaren izaera du, eta jatorrizkoaren baliozkotasun eta eraginkortasun administratiboa du (39/2015 Legea, 27. art.).		

Jaso eta eguneratu beharreko informazioaren artean honako hauek daude:

- Establezimenduen identifikazio-datuak.
- Euskara sustatzeko adierazitako interes-maila.
- Langileen euskararen ezagutza-maila.

Beste alde batetik, *Biribilko* egitasmoaren prestakuntza-ikastaroen (3.4. puntua) funtzionamenduari buruzko balorazio-ikerketa egingo da, bai maila kuantitatiboan, bai kualitatiboan.

3.8. *Biribilko* egitasmoaren jarraipena

Esleipendunak egitasmoaren jarraipen zehatza eta ebaluazio sistematikoa egingo du. Horretarako, urtero, udazkenean, Euskarako Zuzendaritzarekin adostuko ditu aurreikusitako ekimenak eta lan-egutegia.

Urtero, Euskarako Zuzendaritzari honako memoriak aurkeztu beharko dizkio:

1. Euskara ikastaroen ebaluazio-memoria: datu akademikoak, ikasleen gogobetetze-maila eta beste adierazleak jasota, ikasturte bakoitzaren amaieran.
2. Euskaraz barra-barra egitasmoaren jarraipen-memoria: ekimenarekin bat egin duten establezimenduei buruzkoa.

Horiez gain, Euskarako Zuzendaritzak behar izanez gero, esleipendunak azalpen osagarriak jasotzen dituen txostena aurkeztuko du.

Eginkizun horiek guztiak betetzeko, funtsezkoa izango da etengabeko komunikazioa mantentzea Euskarako Zuzendaritzarekin, Bilbao Ekintzarekin euskaltegiekin eta merkatarien elkarteekin.

Egiaztatzeko Urla	https://www.bilbao.eus/aytoonline/verificacion-documentos?csv=dyX%2B%2FPKbd9xbjneB1wQKrw%3D%3D	Egoera	EGUN-ORDUAK
Nork Sinatua	Zuzendaria Director/a - Maria Jose Arrieta Sagarna	Sinatua	29/10/2025 09:49:05
	Sekzioburua Jefe/a de Sección - Nagore Layuno Gerrikagoitia	Sinatua	29/10/2025 09:45:29
	Arduradun Juridikoa / Responsable Jurídico - Miren Iratxe Enderika del Villar	Sinatua	28/10/2025 09:08:56
Araudia	Txosten honek kopia elektroniko autentikoaren izaera du, eta jatorrizkoaren baliozkotasun eta eraginkortasun administratiboa du (39/2015 Legea, 27. art.).		

4.- KONTRATUA EGIKARITZEKO IZENDATUTAKO LAN-TALDEA

Enpresa esleipendunak lantaldea izendatu beharko du kontratua egikaritzeko, eta honako profil profesionala izan beharko du:

PROFIL PROFESIONALEN TAULA			
Erantzukizuna kontratuan (funtzioak)	**Eskatutako titulazioa/prestakuntza akademikoa**	**Eskatzen den gutxieneko esperientzia hizkuntza-plangintzan**	**Hizkuntzak**
Proiektuaren arduraduna	MECESeko 2. mailako titulazioa	10 urte arlo sozioekonomikoan euskara sustatzeko egitasmoetan	C1 euskara
Teknikariak	MECESeko 2. mailako titulazioa	5 urte arlo sozioekonomikoan euskara sustatzeko egitasmoetan	C1 euskara

Eskaintzak baloratu aurretik baldintza horiek betetzen direla egiaztatuko da.

Kontratua gauzatzeko izendatutako lantaldeak bere horretan iraun beharko du kontratuak irauten duen artean:

- Eskaintzan zehaztutako balioen arabera eskainitako langilearen ezagutza teknikoen maila eta lanak gauzatzean erakutsitako ezagutza errealak bat ez badatoz, zuzentzeko neurriak hartzeko eskatuko zaio esleipendunari.
- Arduradunaren lanen produktibitatearen eta kalitatearen balorazioa desegokitzat jotzen bada, edo zerbitzua behar bezala gauzatzearekin lotutako gorabeherarik gertatzen bada, esleipendunari jakinaraziko zaio, zuzentzeko neurriak har ditzan.
- Enpresa esleipendunak eskaintzan izendatutako arduraduna aldatzea proposatzen badu, idatziz jakinaraziko du 15 egun lehenago, egindako aldaketak azalduz eta ordezkapenerako atxikiko dituen profil baliokideko datuak erantsiz.

Enpresa esleipendunak kontratua gauzatzeko jarritako giza baliabideak esleipendunaren zuzendaritzaren eta antolaketaren mende egongo dira, legez ezarritako esparru eta ordena orotan; beraz, esleipenduna izango da langile horren

Egiaztatzeko Urla	https://www.bilbao.eus/aytoonline/verificacion-documentos?csv=dyX%2B%2FPKbd9xbjneB1wQKrw%3D%3D	Egoera	EGUN-ORDUAK
Nork Sinatua	Zuzendaria Director/a - Maria Jose Arrieta Sagarna	Sinatua	29/10/2025 09:49:05
	Sekzioburua Jefe/a de Sección - Nagore Layuno Gerrikagoitia	Sinatua	29/10/2025 09:45:29
	Arduradun Juridikoa / Responsable Jurídico - Miren Iratxe Enderika del Villar	Sinatua	28/10/2025 09:08:56
Araudia	Txosten honek kopia elektroniko autentikoaren izaera du, eta jatorrizkoaren baliozkotasun eta eraginkortasun administratiboa du (39/2015 Legea, 27. art.).		

arduradun bakarra, eta, beraz, ez dute izango inolako lotura juridiko-laboralik Bilboko Udalarekin. Hori guztia dagokion kontratuaren betearazpenaren kontrola alde batera utzita.

Klausula horretan aurreikusitakoa eta eskaintzan giza taldeari buruz jasotako konpromisoak betetzea funtsezko kontratu-betebehartzat jotzen da, eta, beraz, esleipendunak betetzen ez baditu, kontratua suntsiarazi ahal izango da.

5.- ENPRESA ESLEIPENDUNAREN FUNTSEZKO BETEBEHARRAK

a) HIZKUNTZEN ERABILERA: Euskarako Zuzendaritzak harremanetarako erabiliko duen hizkuntza euskara izango da. Euskarrietan erabiliko diren testuak, ahozkoak nahiz idatzizkoak, Euskara Zuzendaritzak eman beharko ditu ontzat. Hizkuntzen kalitatea zaindu egingo da. Testuak zuzen idatzita egon beharko dira, eta erregistro egokia erabiliko da.

b) OROKORRAK: Enpresa esleipendunaren kontura izango dira kontratatutako zerbitzua emateko egin behar diren gastu guztiak: kontratua prestatu eta formalizatzeko izapideak, materialak eta instalazioak, tresnak, esku-lana, Gizarte Segurantza, tributazioa, mota guztietako erantzukizunak eta aseguruak, enpresari dagozkion gainerako kargak eta betebeharrak, eta kontratutik edo lizitazioan parte hartzetik sortzen diren beste guztiak. Betebehar horiek guztiak bere gain hartzen ditu, behin betiko esleipena egiten zaion unetik aurrera.
   Enpresa esleipendunak lortu behar ditu, bere kontura, prestazioa emateko behar diren baimen eta lizentzia guztiak, ofizialak nahiz partikularrak.
   Enpresa esleipendunak lortu behar ditu, bere kontura, bere eskaintzan aipatzen dituen kalitate-ziurtagiriak eta gainerako egiaztagiriak.
   Modu berean, bera izango da garatzen dituen lanen eta ematen dituen prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzule, baita kontratua egikaritzean izandako omisioak, errakuntzak, metodo desegokiak zein amaiera okerrak direla-eta Bilboko Udalari zein hirugarrenei sortutako ondorioen erantzule ere.
   Kontratua behar bezala betetzeko beharrezkoak diren zerbitzuak ere emango ditu enpresa esleipendunak, ordainketa gehigarrirako eskubiderik gabe; esaterako, laneko bileretara eta bilera informatiboetara joatea eta abar.

c) ANTOLAKETA: enpresa esleipendunak kontratuaren esku jarriko ditu kontratua behar bezala egikaritzeko behar diren giza baliabide eta baliabide material

Egiaztatzeko Urla	https://www.bilbao.eus/aytoonline/verificacion-documentos?csv=dyX%2B%2FPKbd9xbjneB1wQKrw%3D%3D	Egoera	EGUN-ORDUAK
Nork Sinatua	Zuzendaria Director/a - Maria Jose Arrieta Sagarna	Sinatua	29/10/2025 09:49:05
	Sekzioburua Jefe/a de Sección - Nagore Layuno Gerrikagoitia	Sinatua	29/10/2025 09:45:29
	Arduradun Juridikoa / Responsable Jurídico - Miren Iratxe Enderika del Villar	Sinatua	28/10/2025 09:08:56
Araudia	Txosten honek kopia elektroniko autentikoaren izaera du, eta jatorrizkoaren baliozkotasun eta eraginkortasun administratiboa du (39/2015 Legea, 27. art.).		

guztiak.

d) GIZA BALIABIDEAK: Enpresa esleipendunak behar beste langile eduki behar ditu, kualifikazio nahikoarekin, kontratu hau betetzeko egin behar diren betekizunak egiteko. Enpresa esleipendunak zehaztuko ditu, aurreko paragrafoan adierazitakoa gorabehera, berak bakarrik, bere langileen premiak.
Bilboko Udalak ez du erantzukizun zuzeneko, solidario ez subsidiariorik izango enpresa esleipendunaren lan arloko betebeharrak betetzeari buruz, ezta kontratu honen ondorioz sortzen direnei buruz ere, ezta ere lan-harremanak azkentzean sortzen diren betebeharrei buruz ere (ez kontratuaren indarraldian, ez kontratua azkendu ondoren). Enpresa esleipendunak hartuko ditu bere gain horietatik eratorritako ondorioak, lan arlokoak nahiz juridikoak, nahiz kontratuak indarrean dirauen artean, nahiz behin amaitutakoan.
Enpresa esleipendunak enplegatzen dituen pertsonak gizarte-segurantzaren sisteman sartuta egongo dira, eta alta emanda, alderdien artean indarrean den kontratu-modalitateari dagokion Gizarte Segurantzaren Araubidean, lan-harremanak irauten duen artean.
Bilboko Udalak ez du izango antolaketako ez zuzendaritzako ahalmenik esleipendun enpresari zerbitzua ematen dieten langileei dagokienez, eta ez du izango inolako harreman juridikorik, lan arlokorik, zibilik edo administraziokorik haiekin.

e) ARDURADUNA: Enpresa esleipendunak koordinatzaile bat izendatu beharko du, eta kontratua egikaritzeko epe osoan zehar prest egon beharko du kontratua egikaritzean sortzen diren gorabeherak konpontzeko.

f) UDALAREN IRUDIA: Zerbitzua eman bitartean sortzen edo egiten diren agirietan, jardueretan edo ekintzetan argi eta garbi agerrarazi beharko da udalaren titulartasuna, Bilboko Udalaren logotipoa txertatuta (idazkietan, txostenetan, aurkezpen txarteletan, eta abar).

g) ENPRESA ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA: Bilboko Udalak beretzako erreserbatzen ditu, esklusibotasunez eta epe mugagabe baterako, kontratua egikarituz garatutako sorkuntzari dagozkion erreprodukzioko, banaketako, komunikazio publikoko eta eraldaketako eskubideak. Enpresa esleipendunaren betebeharra izango da hirugarren batzuek kontratuaren objektua dela-eta aurkeztutako erreklamazio, demanda, eta auziko auzi guztiei erantzuteko, eta

Egiaztatzeko Urla	https://www.bilbao.eus/aytoonline/verificacion-documentos?csv=dyX%2B%2FPKbd9xbjneB1wQKrw%3D%3D	Egoera	EGUN-ORDUAK
Nork Sinatua	Zuzendaria Director/a - Maria Jose Arrieta Sagarna	Sinatua	29/10/2025 09:49:05
	Sekzioburua Jefe/a de Sección - Nagore Layuno Gerrikagoitia	Sinatua	29/10/2025 09:45:29
	Arduradun Juridikoa / Responsable Jurídico - Miren Iratxe Enderika del Villar	Sinatua	28/10/2025 09:08:56
Araudia	Txosten honek kopia elektroniko autentikoaren izaera du, eta jatorrizkoaren baliozkotasun eta eraginkortasun administratiboa du (39/2015 Legea, 27. art.).		

berak hartuko ditu bere gain, eta erantzukizun orotatik kanpo utziko du hartara Bilboko Udala.

h) LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA: Nolanahi ere, lan-arriskuen prebentzioaren arloan indarrean den legeriari dagozkion betebehar guztiak bete beharko dira, behar bezala aplikatuz araudia, hitzarmen honen ondorioz gauzatzen den jarduerari dagozkion lan-arriskuen prebentziorako indarrean dagoena, eta hartarako ezarritako legezko tresnak baliatuz; hala, enpresa esleipendunarena ez beste inorena izango da betebehar horiek betetzeko erantzukizuna, eta, beraz, horiek ez betetzeak edo behar bezala ez betetzeak ekartzen dituen ondorioen erantzukizuna ere bai.

i) KONFIDENTZIALTASUNA: Kontratu honekin egindako lan guztia eta halaber lan horien bidez eskuratzen den informazio guztia konfidentzialak izango dira, eta enpresa esleipendunak ezingo du erabili inolako informaziorik, ez hirugarren batzuei eskuratu, Udalaren idatzizko baimenik gabe.
Kontratatuaren obligazioa izango da behar diren eta eskura dituen baliabide guztiak jartzea, jagondako dokumentazioko datuen konfidentzialtasunaren inguruko legedia betetzeko.

j) HIZKERA INKLUSIBOA: Enpresa esleipendunak hizkera ez-sexista erabiliko du bere komunikazioetan, udaleko Berdintasun Sailak ildo horretan ezarritako irizpideei jarraituz.

k) LARRIALDIAK: Enpresaren larrialdiengatik edo antzeko arrazoiengatik enpresa esleipendunak uste badu ezin duela zerbitzua egin ezarrita dauden betekizunak betez, Bilboko Udalari jakinarazi beharko dio berehala, neurri egokiak har ditzan, eragindako eragozpenak saihesteko edo murrizteko. Neurri horiek sortzen dituzten gastuak esleipendun enpresak ordainduko ditu, hargatik eragotzi gabe dagozkion zehapenak eta deskontuak.
Kasu horietakoren batean esleipendun enpresak neurri egokiak hartzen baldin baditu kalteak konpentsatzeko, zehapena ez da bidezkoa izango, eta egin gabeko lanen zenbatekoa baino ez da deskontatuko.

l) BESTE OBLIGAZIO BATZUK: Kontratua behar bezala betetzeko beharrezkoak diren zerbitzuak ere emango ditu enpresa esleipendunak, ordainketa gehigarrirako eskubiderik gabe; esaterako, laneko bileretara eta bilera informatiboetara joatea eta abar. Era berean, Administrazioak bere esku izango

Egiaztatzeko Urla	https://www.bilbao.eus/aytoonline/verificacion-documentos?csv=dyX%2B%2FPKbd9xbjneB1wQKrw%3D%3D	Egoera	EGUN-ORDUAK
Nork Sinatua	Zuzendaria Director/a - Maria Jose Arrieta Sagarna	Sinatua	29/10/2025 09:49:05
	Sekzioburua Jefe/a de Sección - Nagore Layuno Gerrikagoitia	Sinatua	29/10/2025 09:45:29
	Arduradun Juridikoa / Responsable Jurídico - Miren Iratxe Enderika del Villar	Sinatua	28/10/2025 09:08:56
Araudia	Txosten honek kopia elektroniko autentikoaren izaera du, eta jatorrizkoaren baliozkotasun eta eraginkortasun administratiboa du (39/2015 Legea, 27. art.).		

du lehen deskribatutakoen antzeko beste produktu batzuk egin ditzan errekeritzea, esleipendunari kostu gehigarririk eragin gabe.

Egiaztatzeko Urla	https://www.bilbao.eus/aytoonline/verificacion-documentos?csv=dyX%2B%2FPKbd9xbjneB1wQKrw%3D%3D	Egoera	EGUN-ORDUAK
Nork Sinatua	Zuzendaria Director/a - Maria Jose Arrieta Sagarna	Sinatua	29/10/2025 09:49:05
	Sekzioburua Jefe/a de Sección - Nagore Layuno Gerrikagoitia	Sinatua	29/10/2025 09:45:29
	Arduradun Juridikoa / Responsable Jurídico - Miren Iratxe Enderika del Villar	Sinatua	28/10/2025 09:08:56
Araudia	Txosten honek kopia elektroniko autentikoaren izaera du, eta jatorrizkoaren baliozkotasun eta eraginkortasun administratiboa du (39/2015 Legea, 27. art.).		